

Fray Juan de Zumarraga

Zenon Uriguen, Pasiotarra



Istoria zuzen ta leiala:

Istoriaren iturri garbietatik artu doguz Fray Juan de Zumarragaren datuak, biziera eta ekinzazak. Ortarako bidezko ta egiatzko istoria ikusi, aztertu, garkotu ta onbideratzea dagokigu gaurko egunetan. Juan Durangon jaioa dogu 1468 urtean eta il 1542an, Juan mutikoak gatzetatik erakusten dau bere etorkizunaren itxaropena. Nundik datorkioz, ain oparo erakusten dituan baliabide ta ganora arrigarriak? Bai, jatorriz, euskal izatetik datorkioz onbide eta eragite goresgarriak: jatortasuna, leialtasuna ta ekintasuna. Eta batez be: “Euskaldun, fededun” izatea. Eliz ikasteak egiñik Franzizkano izan zan bere bizi osoan. Franziskano artean fraidexetan Nagusi da urte batzuetan. Bere sormena ta gaitasuna ikusirik Probintzial izendatua da. 1528 urtean Mexikora doa ta an agertzen dau bere buru argitasun ta kristau fedean Gotzain izateko gaitasuna. 1548’an Durango’ko seme on ta jatorra, fray Juan, Mexiko’ko Arzobispo izateko aukeratua eta izendatua izan zan.

Agintarien aurrean:

–Fray Juanen ekintza gorena etzan izan Inkisidor izatea, ba izendapen ori gogo txarrez artu eban. –Fray Juan Mexiko’ko lenengo gotzainak, beti aldeztu zituan, jo ta ke, indioen bizia eta eskubideak. Adoretu, eta bere buruaren arrizkuz, salatu zituan, bildur barik, Enperador eta agintariek indioen aurka egiten ebezan injustiziak ta gogorkeria gaitik. Agintariek ez eutsen parkatu eta bere kontrako esamesak, faltsokeriak zabalzen ari ziran “itzez ta egitez”- Emen izan zan Zumarraga gotzainaren izen ona eta bizi omena galtzearen asiera...

Ekintza goragarriak:

Zumarragaren asmo Amerikan izan zan erri barriak sortu, lantegiak jarri eta gisa guttiko ogibideak egiten erakutsi. Au izan zan eriotz ordurarte bere asmo eta ekinbidea. –Bere

gogo biziena izan zan askatasuna emon jopuzan bizi ziranai, Fray Bartolome de las Casas jaunagaz batera, agintariei aurrez-aurre ekinik. -Zumarragak ekarri eban Amerikara lenengo imprenta eta argitaratu lenengo liburua, "Breve y compendiosa doctrina cristiana en lengua mexicana y castellana" Fray Juan asi zan Mexiko uri-buruan Katedrala eraiki ta eragiten gaur egun eder ta ikusgarria dana - Gaztedia kristau bidean jartzeko eraiki zituan Ikastetxe batzuk neska ta mutillentzako. -Berak egiña da ospitala "Amor de Dios", abegi ona emoteko iñun artzen ez diran gaxoai. -Berak jarri eban bere etxean, bere liburuekin, lenengo "Biblioteca

del mundo nuevo". -1527 urtean berak fundatu eban " Mexiko iri buruan "Real-Pontificia Universidad" goi-jakintzak ikasteko, ikastetxe gorenetan irakasten dan moduan, baita be teolojia ta Artes ikasteko. -Azkenik Enperador jaunari bein-beiñean eskatzen dautso lege bat joputza lotsagarria debekatzeko. Zorionez 1530 urtean bete zan lege ori. Au bai dala benetan: aurrera jo.

"Miresgarri da guretzat urietan etxe ederrak ikustea. Eta gure lagunen eder ekintzak ez gaitue miresten" (Zenon de Elea). "Ekintza goragarriak beti dira dantzat onuragarriak"

